DINOSAUROEN KOBA

BILDUMAKO BESTE LIBURU BATZUK:

Narrastien Erregearen
Erasoa

Hiru adarreko
munstroaren ihesaldia

Armaduradun
piztien artean

Suge hegoduraden
hegaldia

Lapur azkarraren
atzetik

Narrasti erraldoien
ihesaldia



DINOSAUROEN KOBA

HIRU ADARREKO MUNSTROAREN IHESALDIA

Egilea:
REX STONE

Irudiak:
MIKE SPOOR

Itzultzailea:
USOA WYSSENBACH



FITXA

⇨JAMIE DUELA GUTXI ETORRI DA HIRITIK DINOSAUROEN BADIAKO ITSASARGIRA BIZITZERA. BERE AITAK DINOSAUROEN MUSEO BAT IREKIKO DU ITSASARGIAREN BEHEKO SOLAIRUAN. JAMIE FOSILAK BILATZERA DOA HONDARTZAKO ITSASLABAR BIRRINDUETARA, ETA BERTAN, HERRIKO MUTIL BAT EZAGUTZEN DU: TOM. BI LAGUNEK SEKRETU IZUGARRI BAT AURKITZEN DUTE: BENETAKO DINOSAUROAK DITUEN MUNDU BAT! BAINA EZ DAUDE DINOSAUROAK BAKARRIK HISTORIAURREKO MUNDU HORRETAN...

JAMIE



- **IZEN-ABIZENAK:** JAMIE MORGAN
- **ADINA:** 8 URTE
- **TAMAINA:** JATOM BAT*
- **GEHIENEKO ABIADURA:** 24 KM/H
- **ATSEGIN DU:** FOSILAK BILATZEA ETA DINOSAUROEI BURUZ IKASTEA
- **EZ DU ATSEGIN:** ETXEAN GELDITU BEHAR IZATEA








***OHARRA:** JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA: 125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

TOM

- **IZEN-ABIZENAK:** THOMAS CLAY
- **ADINA:** 8 URTE
- **TAMAINA:** JATOM BAT*
- **GEHIENEKO ABIADURA:** 24 KM/H
- **ATSEGIN DU:** ANIMALIEN OINATZAK JARRAITZEA ETA BASA BIZITZA ESPLORATZEA
- **EZ DU ATSEGIN:** EGUN EURITSUAK




Begia

Eskua

WANNA

- **IZENA:** WANNANOSAURUS
- **ADINA:** 65–80 MILIOI URTE**
- **TAMAINA:** JATOM BAT*
- **GEHIENEKO ABIADURA:** 50 KM/H. BEREZIKI T-REX BATEK HARRAPATU NAHI DUENEAN
- **ATSEGIN DU:** GINKGO IZENEKO FRUTA KIRATSA ETA ZUHAITZEN ENBORRAK BURUAZ JOTZEA
- **EZ DU ATSEGIN:** DINOSAURO BELDURGARRIAK




Burua

Hanka

*__OHARRA__: JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA: 125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

**__OHARRA__: ZIENTZIALARIEK "GOI KRETAZEOA" DEITZEN DIOTE GARAI HONI

TRIZERATOPS



Kehetasun

Hanka

Ahoa


Adarrak


- **IZENA:** TRIZERATOPS
- **ADINA:** 65–80 MILIOI URTE**
- **ALTUERA:** 2 JATOM*
- **LUZERA:** 6 JATOM*
- **PISUA:** 280 JATOM*
- **ADARRAK:** ERRATZ BATEN KIRTENAREN LUZERAKOAK
- **GEHIENEKO ABIADURA:** MANTSOA NORMALEAN, BAINA 48 KM/H EGIN DITZAKE ERASOAN
- **ATSEGIN DU:** TALDEKIDE IZATEA
- **EZ DU ATSEGIN:** BERE ESPEZIEA IRAUNGITZEA. DESAGERTU ZEN AZKENATAKO BAT IZAN ZEN

***OHARRA:** JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA: 125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

****OHARRA:** ZIENTZIALARIEK "GOI KRETAZEOA" DEITZEN DIOTE GARAI HONI


DINOSAURIEN BADIA
Herria
Kirol-portua
Itsasargiaren lur-muturra


Lokatza eta fosilak dauden lur-jausiak
Hondartza lohitsua
DINOSAUROEN KOBA
Hondartza, itsasgora dagoenean
Hondartza, itsasbehera dagoenean
Itsasoa
Kontrabandisten gunea



Jamie Morgan lasterka abiatu zen Dinosauroen Badiako hondartza harritsuan barrena bere lagunik onenaren bila.

—Dena ekarri duzu? –galdetu zion Tom Clayk, zutik zegoen arrokatik jauzi eginez–. Prismatikoak eta iparrorratza ekarri ditut.

Jamiek motxila kendu, eta barruan zeramatzan fosilak aurkitzeko tresnak bilatu zituen.

—Labana, koadernoa eta Fosil Aurkitzailea ekarri ditut.

Jamieren eskuko ordenagailu berriak, botoi bati sakatuz gero, historiaurreko informazio asko ematen zuen.

—Ogitarteko batzuk ere ekarri ditut –esan zuen Jamiek–. Gazta eta aitonak etxean egindako ozpinkiak. Eztarria sutan jartzeko modukoak!


—Irrikitan nago gure Kobara itzultzeko –esan zuen Tomek, txingoka aurrera eginez.

—Dinosauroengana itzultzeko irrikitan zaudela esan nahiko duzu, jakina! –esan zuen Jamiek bi lagunak hondartzan behera azkar-azkar zihoazela. Bezperan ezagutu zuten elkar Jamiek eta Tomek eta Dinosauroen Badiako sekreturik handiena aurkitu zuten: dinosauro bizidunen mundu izugarria! Lehendabizi, dinosauro baten oinatz fosilak aurkitu zituen Jamiek, eta, gero, oinatz horiei jarraituz, benetako dinosauroak hara-hona zebiltzan toki batera heldu ziren.



—Zaila da horrelako sekretu handi bat isilik gordetzea –aitortu zuen Tomek–. Anaia nagusiak etengabe galdetu zidan zertan ibili nintzen atzo.

—Badakit! –erantzun zion Jamiek–. Aitak trizeratops baten burezur erraldoia jaso du gaur goizean museoan jartzeko, eta ezin nituen burutik kendu atzo ikusi genituen benetako trizeratopsak.



Jamie eta bere aita aitonarekin bizitzera joanak ziren, itsaslabarretan zegoen itsasargi zaharrera, eta Jamieren aitaren asmoa zen beheko solairuan dinosauroen museo bat irekitzea. Jamieren aitak beste inork baino gehiago zekien dinosauroei buruz, baina ez zituen benetako T-Rex baten koloreak sekula ikusi, Jamiek eta Tomek ez bezala!

—Ia ahaztu zait esatea! –esan zuen Jamiek arnasestuka, Koba sekreturako bide aldapatsuan

gora nekez zihoazela–. Koloretako lapitzak ekarri ditut. Pentsatu dut agian Dinoen Munduaren mapa bat marraz dezakegula nire koadernoan.


—Ideia bikaina! –esan zuen Tomek.


—Benetako esploratzaileak izango gara, lurralde ezezagunen mapak egiten!

—Eta dinosauro mordoa ikusten!

Koba sekretura zeraman harkaitz multzo garaira heldu ziren, eta arroketan zeuden arrailez baliatuz egin zuten gora. Goi-goiko harkaitzetik, Jamiek bere aitona ikusi zuen badian, otarrainak arrantzatzen.

Jamie azkar batean sartu zen koba ilunera, baina Tom sarreran gelditu zen.





—Eta Dinoen Mundua benetakoa ez bada? –galdetu zuen–. Eta dena amestu badugu?

Jamiek barre egin zuen, eta algaren oihartzunak koban zabaldu ziren.

—Ezta pentsatu ere! Ezagutu genuen T-Rex hori benetakoa zen, zalantzarik gabe!

Irrikaz beterik linterna piztu, eta amaierako txokora zuzendu zuen. Argiak kobako horman zegoen arrail txikia erakutsi zuen.

Jamiek motxila kendu, eta narrasean igaro zen bigarren ganberara, lurrean herrestatuz. Estuagoa eta ilun-iluna zen bigarren ganbera hura. Jamiek eta Tomek uste zuten toki horretara heldu ziren lehenak zirela. Harrizko zorura zuzendu zuen Jamiek argia.

—Hementxe daude atzo aurkitu genituen oinatz fosilak.

—Inoiz aurkitu diren fosilik hoberenak –esan zuen Tomek.